



*Bigarren Lehendakarioordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2023KO OTSAILAREN 24KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, BIZKAIKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUKO LANGILEEK KOMUNITATEARI EMATEN DIZKIOTEN EZINBESTEKO ZERBITZUAK BETEKO DIRELA BERMATZEN DUENA.

LAB sindikatuek greba deitu dute 2023ko otsailaren 27 eta 28rako eta martxoaren 87rako Bizkaiko Etxez etxeko Laguntza Sektorean. Lanuzteak lanaldi osokoak izango dira.

Grebarako deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota dago, eta hasitako espedienteen jasota dago.

Deitzaileek emandako datuen arabera, sektorean guztira 1.250 langilek ematen dute zerbitzua, gehienak etxeko laguntzaileak. Zerbitzuak, batez ere, astelehenetik ostiralera eta 06: 00etatik 22: 00etara ematen dira. Zerbitzuaren eguneko iraupena ordu batetik hirura bitartekoa da, baina ohikoena ordu batetik bi ordura bitartekoa da, eta asteko iraupena behin eta bost aldiz bitartekoa, nahiz eta ohikoena astean hiru eta lau aldiz izan.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikuluan, langileen greba-eskubidea aitortzen da haien interesak defendatzeko, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarrian dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta zerrendatzen eta babesten dituen eskubide garrantzitsuenak, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, askatasunez zirkulatzea, informazioa askatasunez jasotzea eta auzitegian babes eragingarria jasotzea, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Hala ere, aurreko premisa ondorioztatuta, agerikoa da funtsezko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin proportzionaltasunaren printzipioa zorrotasunez aplikatuz hartu behar dela; eta horretarako, hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots,

«egokitasun-judizioa» deritzona; egitatea aztertu ostean, helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatzea, hau da, «beharrizanezko judizioa» deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako eragiten diren onurak edo abantailak gehiago direlako, auzian dauden beste ondasun edo balio batzuetan eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian». Konstituzio Auzitegiak hainbat aldiz ebatzi du gai hori (122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003).

Aurreko erabakietatik ondorioztatu behar dugu komunitatearentzako funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta, beraz, nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan–, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Horregatik, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenaren ezaugarriak hartu beharko dira kontuan.

Funtzio-eremuari dagokionez, lehen mailako arreta asistentzialeko zerbitzu batean egindako greba bat da, eguneroko bizitzako jardueretan autonomia mugatua duten pertsonen etxean egoteko laguntza emateko, eta arreta pertsonalerako eta, hala badagokio, etxeko arretarako laguntza bat eskaintzeko, etxean bertan lan egin ahal izateko eta komunitate-ingurunean integratu ahal izateko. Arreta indibidualizatuko programak dira, eguneroko bizitzan beharrezkoak diren zeregin jakin batzuk egiteko laguntza edo ordezkapena ekarriko dutenak.

Denbora-eremuari dagokionez, segidakoak diren hiru eguneko greba da, 2023ko otsailaren 27 eta 28rako eta martxoaren 8rako, lanaldi osoan.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasotako gizarte-zerbitzua da, eta, 22.1.2 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan jasotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen artean dago. Laguntza pertsonala, orientazioa edo eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak zuzenean egitea hartzen ditu barne, hala nola: jaikitzea/oheratzea, janzteia, etxeko garbiketa, arropa garbitzea eta lisatzea, ontziteria garbitzea, eguneroko higiene pertsonala, elikadura, medikazioaren kontrola, mugikortasuna eta joan-etorriak, familiarren antolamenduan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea eta zerbitzu honen helburuak lortzeko beharrezkoak diren beste jarduerak osagarri batzuk, bai eta eguneko zentroetara edo osasun-zentroetara

etxetik kanpo laguntzea ere. Zerbitzu horien onuradun izango dira, hainbat mailatan, bakarrik dauden edo mendekotasuna duten adinekoak.

Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotzen diren bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko eskubide konstituzionalak, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, eta ezin dira geratu behar bezalako babesik gabe grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean. Babes horrek, bestalde, ezin du inola ere greba-eskubidea edukiz hustu, Konstituzio Auzitegiak ezarritako doktrinaren arabera eskubide hori ezartzeak izan behar duen izaera murriztailea dela eta. Babes horren irismena handitu egin daiteke denboraren joanean herritarren oinarrizko eskubideetan eragindako kaltea justifikaziorik gabe gauzatzen denean.

Etkez etxeko laguntza-zerbitzuak hainbat funtzio egitea aurreikusten du. Alde batetik, norberaren garbiketak egitea, jaikitzen eta oheratzen laguntzea, janzteko laguntza, elikadura, medikazioaren administrazioaren kontrola eta jarraipena, mugikortasuna eta etxe barruko lekualdaketa, etxetik kanpoko lekualdatzeetan laguntzea kudeaketa pertsonaletarako (banketxeak, osasuna, dokumentazioa ematea eta eskatzea, eguneko zentroetara laguntzea, etab.). Eta, bestetik, etxeko arreta, hala nola etxea garbitzen, arropa garbitzen eta lisatzen, elikagaiak erosten, janaria prestatzen laguntzen, eta abar.

Hala ere, zerbitzu horien intentsitateak ez du eragin bera erabiltzaile guztiengan, eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko autonomia-mailaren arabera baita hori. Horrela, osasun eta osotasun fisiko edo psikikorako oinarrizko zereginak egiteko erabateko edo ia erabateko mugak dituzten pertsonak greba honen eraginpeko zerbitzuak erabili behar dituzte, zalantzarik gabe.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua hiru mendetasun-gradu ezartzen ditu, eta mendekotasuna duten pertsonen arreta graduaren arabera zehazten du. «Mendetasun handiko» graduak (III. gradua) dituzten pertsonak laguntza behar dute egunero hainbat aldiz eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala erabat galtzen dutenez, beste pertsona baten edo batzuen laguntza ezinbestekoa eta etengabea behar dute autonomia pertsonalerako. «Mendetasun larria» duten pertsonak (II. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko, egunean bi edo hiru aldiz, baina ez dute zaintzaile baten etengabeko laguntzarik behar autonomia pertsonalerako, baina laguntza zabala behar dute. Azkenik, mendetasun-maila txikiena «mendetasun ertaina» duten pertsonena da (I. gradua); izan ere, eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar dute, gutxienez egunean behin, edo autonomia pertsonalerako aldizkako laguntza edo laguntza mugatua behar dute.

Honako hauek dira etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileak:

- a) Autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten 60 urtetik gorako pertsonak;
- b) Autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten desgaitasunen bat edo elbarritasunen bat duten pertsonak.
- c) Abenduaren 14ko 39/2006 Legearen babesean mendeko gisa kalifikatutako pertsonak.
- d) Behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten adingabeak.
- e) Familia-taldeak edo karga handiegiak, harreman-gatazkak, gizarte-egoera ezegonkorrak eta/edo gaixotasun fisiko eta/edo psikikoaren ondoriozko arazoak dituzten pertsonak.

Gainera, enpresa-elkarteek eta enpresek emandako datuen arabera, etxez etxeko laguntza-zerbitzu horren erabiltzaile gehienek mendetasun-graduren bat aitortuta dute. (I, II edo III).

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuan hainbat jarduera mota garatzen dira: etxeko laguntza (elikadurarekin, jantziekin eta etxebizitzaren mantentzearekin lotutako laguntza); laguntza pertsonala oinarritzko jardueretan (garbitasuna eta higiene pertsonala; jaikitzeak, oheratzeko eta eserlekuetik altxatzeko laguntza; janzeran eta jaten laguntza; medikazioaren kontrola eta jarraipena; etxe barruko mugikortasunean laguntzea; etxetik kanpoko laguntza, pertsonak kudeatzeko; etxetik kanpoko lekualdatzeetan laguntzea, ezarritako kasuetan); eta bestelako jarduera osagarriak edo salbuespenezkoak.

Erabiltzaileen mendekotasun-mailak kontuan hartzeaz gain, kontuan hartu behar da etxez etxeko laguntza-zerbitzutik egiten diren zeregin guztiak ez direla funtsezkotzat jotzen, eta zeregin horietako batzuk baino ezin direla funtsezkotzat jo erabiltzaileen bizitzarako, segurtasunerako eta duintasunerako eskubideak bermatzeko.

Horregatik, pertsona horiei janari-zerbitzuak ez emateak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aitortutako eskubideak kaltetzeaz gain, osasun-arriskuko egoeran jartzea dakar. Are gehiago kontuan hartzen bada, elikadurarekin batera, kasuen arabera, botikak eman ohi zaizkiela, eta hori herritarren osasuna babesteko eskubidearen aurkakoa izan daitekeela; izan ere, eskubide hori bermatzea, Konstituzioaren 43. artikuluan ezarrita dagoenez, botere publikoei dagokie, prebentzio-neurrien eta prestazioa ziurtatzeko neurrien bidez.

Gauza bera esan daiteke norberaren higieinarekin, komunaren erabilerarekin (hala badagokio), maskuriko eta hesteetako ezabatzearekin eta etxean mugitzeko jarduerak egitearekin lotutako zerbitzuei buruz, desgaitasun fisikoa edo psikikoa dutelako beren kabuz moldatu ezin diren pertsonentzat. Eta etxean alertaren bat gertatzen bada,

larrialdietako zerbitzuekin, osasun-zerbitzuekin edo beste batzuekin harremanetan jartzea.

Ezinbestekotzat jotako zerbitzuak mantentzeak eragindako langileen ehunekoa edo kopurua zehazteari dagokionez, greba-prozeduran bildutako dokumentaziotik ondorioztatzen da gobernu-agintaritza horrek ezin duela ehuneko hori kuantifikatu. Hori dela eta, agindu honek, ziurtasun eta segurtasun juridiko handiagoa lortze aldera, zehaztu egiten du nortzuek jasoko duten greba, bai eta pertsona horiek greba egin bitartean jaso behar dituzten prestazio zehatzen mota eta norainokoa ere.

Kontuan hartuta ematen diren zerbitzuak, batez ere, kalteberatasun-maila handia duten pertsonen zuzentzen zaizkiela, hiru egunetako, 2023ko otsailaren 27 eta 28rako eta martxoaren 8rako, greba jarraitua dela, beharrezkotzat jotzen da agindu honetan aurrerago zehazten diren zerbitzuak II. eta III. mailako mendetasun-egoeran dauden pertsonen ematea.

Azaldutakoarekin bat etorritik, horrelako grebak gutxieneko zerbitzurik ezarri gabe eginez gero, grebarekin lortu nahi den helburua baino askoz kalte handiagoak eragin ditzake, egoiliarren eta erabiltzaileen osasuna arriskuan jar baitaiteke, ematen den zerbitzua funtsezkoa eta oinarrizkoa baita. Hori dela eta, gobernu-agintaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko.

Oraintsu, egungoaren antzeko bi greba-deialdi egin dira: batetik, 2022ko maiatzaren 20ko Agindua, Pasaiako Udalaren ELZn greba egiteko, eta, bestetik, 2022ko maiatzaren 27ko Agindua, Hernaniko Udalaren ELZn greba egiteko. Era berean, 2022ko ekainaren 24ko, 2022ko uztailaren 26ko eta 2022ko urriaren 7ko eta 2022ko azaroaren 3ko Agindua eman da, Ortuellako ELZn deitutako grebetarako, LAGUNDUZ 2, S.L.- FSYC UTE enpresari eragiten ziona. Berrikiago, 2022ko abenduaren 1eko Agindua eta otsailaren 9ko Agindua eman dira, Bizkaiko etxeko laguntzako sektorean deitutako greba deialdirako.

Agindu horiek, greba-deialdi honetan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridikoa izan gabe ere – Konstituzioaren doktrinak debekatutako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko zer eragin positibo edo negatibo izan dituzten agindu honek babestu nahi dituen Konstituzioaren arabera babes daitezkeen eskubide eta ondasunetan – grebarena barne – deialdi horretako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez.

Lan Harremanen buruzko azaroaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «Greba edozein motatako zerbitzu publikoak edo premia aitortu eta geroraezineko zerbitzuak emateaz arduratzen diren enpresetan deklaritzen denean eta larritasun bereziko inguruabarrak daudenean,

gobernuagintaritzak zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko beharrezko neurriak erabaki ahal izango ditu», eta «Gobernuak, halaber, xede horietarako behar diren eskuhartze neurriak hartu ahal izango ditu».

Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 8ko 11/1981 epaian (11/1981 STC, apirilaren 8koa [RTC 1981M1]), greba-eskubideari buruzko Konstituzioaren 28.2 artikuluekin bat etorriz, honako hau ezartzen baitu: «Eskubide horren egikaritzea arautzen duen Legeak behar diren bermeak ezarriko ditu erkidegoaren funtsezko zerbitzuak mantenduko direla ziurtatzeko». Gobernu-agintaritzari esleitzen zaio greba-kasuan funtsezko zerbitzuak mantentzea bermatuko duten hainbat motatako berme-neurriak hartzeko aukera, eta neurri horietako bat da, administrazio-ebazpenaren bidez, jarduerari eusteko ezinbestekoak diren gutxieneko zerbitzuak ezartzea, eta, ondorioz, langile kopuru jakin bati zerbitzu horiek egiteko deia egitea, langile horiek behar bezala lan egin dezaten.

Horregatik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, gobernu-erabakiaren eraginpean egongo diren zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien zehaztapen eta jardun-arloak finkatzen dituenak, lan-arloko legeria betearaztearen arloan bere gain hartutako eskumenak. Dekretu horren 2. j) atalean, zehazki, zerbitzu publikoak emateaz arduratzen diren enpresa, entitate eta erakundeei eragiten dieten greba-eskubidea baliatzen den kasuetan edo zerbitzu publikoak emateaz arduratzen diren edo beharrian aitortu eta atzeraezineko enpresei eragiten dieten kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuak mantenduko direla ziurtatzeko beharrezko bermeak ezartzeko eskumena erabiltzea, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren lehendakariordea eta Lan eta Enplegu sailburua, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak jasota, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena.- 1. Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileei 2023ko otsailaren 27 eta 28rako eta martxoaren 87rako, lanaldi osoan, grebarako deia egin zaien eskubidea baliatzeko, ezinbesteko prestazioei eta ondoren zehazten diren gutxieneko zerbitzuei etsi beharko zaie:

1.1. Gosari, bazkari eta afari-zerbitzuak egingo dira. Zerbitzu horiek emateko, prestaketan ahalik eta denbora gutxien erabili beharko da, eta, ahal den neurrian, aurrez prestatutako edo aurrez prestatutako elikagaiak erabili beharko dira.

1.2. Honako zerbitzu hauek egingo dira: eguneroko higiene pertsonala, komuna erabiltzea, hala badagokio, maskuriak eta hesteak kentzea, jaikitze eta oheratzeko laguntza, janzteko laguntza, eta sendagaiak eta elikagaiak hartzen direla gainbegiratzea.

1.3. Erabiltzaileei laguntzeko lanak egingo dira, aldeztatik hitzordua hitzartuta duten eta atzeratu ezin diren osasun-zentroetara joateko.

1.4. Gizarte-zerbitzu espezializatueta zentroi (eguneko zentroi) laguntzeko lanak egingo dira.

1.5. Ohean dauden pertsonentzat, beharrezko jarrera-aldaketak egingo dira.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuak II. eta III. mendetasun-maila duten pertsonen emango zaizkie.

Bigarrena.- Aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira, dagozkion administrazio-izapideak egin ondoren, grebaren iraupena kontuan hartuta, edo higiene-arrazoiak, arrazoi biosanitarioak edo gerora sortutako beste ezohiko arrazoi batzuk direla-eta.

Hirugarrena.- 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte zerbitzuak lehentasunez.

2. Langileen ordezkariari entzun ondoren, Enpresaren Zuzendaritzari dagokio gutxieneko zerbitzuak egin behar dituzten langileen izenen izendapena eta eginkizunen esleipena, txandaka, betiere aurreko artikuluan eta indarreko legerian jasotako mugak errespetatuz.

Laugarrena.- Agindu honen aurreko idatz-zatietan jasotako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira nahasi horiek emateko izendatutako langileen aldaketek edo lanuzteek. Halakorik gertatuz gero, legez kontratuz joko dira, eta eragiten dituztenek erantzukizuna izango dute, eta erantzukizun hori indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera eskatuko zaie.

Bosgarrena.- Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez du ekarriko inolako mugarik greba arautzen duen araudiak egoera horretan dauden langileei aitortzen dizkien eskubideetan,



ez eta greba eragin duten eskaeren izapidetzeari eta ondorioei dagokienez ere.

Seigarrena.- Agindu hau jakinarazten den egunean jarriko da indarrean.

Zazpigarrena.- Jakinaraz bekie agindu hau interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako moduan, eta adieraz bekie, halaber, agindu honek administrazio-bidea amaitzen duela eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daitekeela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion salan, jakinarazten den egunetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritz, jakinaraz bedi, halaber, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola Lan Agintaritzari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGU SAILBURUA**